

Garmendia eta Fannyren sekretua
Kirmen Uribe
Irudigilea: Mikel Valverde
Elkar, 2006
88 orrialde
10 urtetik aurrera
10 €

Poetaren alderdi menturazalea

Kirmen Uribe idazle bizkaitarrak Ameriketara joandako euskaldun baten inguruan 2003an abiarazitako “Garmendia” bildumaren hirugarren emanaldia da *Garmendia eta Fannyren sekretua*. Beste hainbeste euskaldunek egin zuten legez, Garmendia ere euskal foruen galeraren ondoriozko krisiaren eraginez joango zen, artzain; laster, ordea, pistolari bihurtuko zen, eta halabeharrak alde batetik bestera erabiliko zuen, Amalio bere lagun mexikar leialarekin batera. Lehen liburukian Zaldun Beltzarengandik ihesi ibili ziren; bigarrenean, Ameriketara barrena Buffalo Bill-en zirkuarekin; eta, hirugarren honetan, nora eta Veneziara joan dira Fanny *Sirena Saloon*-eko lagunaren bila.

Fanny, izan ere, herritik desagertu egin baita; eta utzi dituen arrasto urriek Italia seinalatzen dute egonleku ziurrentzat. Haraxe abiatzen dira, beraz: lehen etapak New Yorkera eramango ditu, bertan itsasontzia hartuta Veneziaraino joateko.

Fanny Garmendiaren amodio aitorezina baita; eta horixe da, hain zuzen ere abentura guztiaren atzean dagoen gai nagusia, liburuko lehen esaldian zein azkenekoan esplizituki adierazia: “Maitemina bihotzeko azkura da, hazka eginez pasatzen ez den azkura”.

Alde horretatik, Uribe poetaren alderdi menturazalea zertan den eta noraino iristen den azaldu beharko litzateke. Hasteko, gure artean urte askoan zehar boladan egon den “errealismo kritikoa” delakotik aldendu, eta haur eta gazte literaturan debuta egiteko abenturazko genero bat aukeratu du: *western* delakoa-edo. Idazleak badaki, ordea, gaur eguneko irakurleek (batez ere bitartekariak, noski) nekez onartuko luketela aspaldian indarra galtutako genero bat bere horretan berpizturik ikustea. Alegia, gaur egun inor gutxik sinistuko luke “klasiko” itxura hartu nahi lukeen *western* istoriorik, eta horregatik Uribek begi keinuz, trabestimendu parodikoa erabiliz kontatzen ditu bere istorioak (Anjel Lertxundik “Madame Kontxesi” delako sailarekin detektibe-generoari aurre egin zion bezala). Horrelako generoak berreskuratzeke bi urrats eman ohi dira: lehena, helduei zuzenduta zegoen generoa orain haurrei zuzentzea; bigarrena, parodia eta umorea erabiltzea. Hala, Garmendiaren kasuan, heroia ez da pertsonaia gogor

apolineoa, sentibera eta dionisiakoa baizik; eta abenturan barrena gertatzen diren egoerak, oro har, barregarriak izaten dira. Hartzaille-aldaketarekin batera, begirada ironiko bihurtu da.

Ezin garbi esan, testuinguru horretan, protagonista euskalduna izateak zer funtzio betetzen duen. Alde batera, ezbaierik gabe irakurleengana hurbiltzeko asmoa dago, pistolaria “gure” egitekoa. Baina horrekin batera parodia ere egin nahi izan ez ote den zalantzan nago (nahiz eta, bestalde, amerikar literatura –bereziki gaztelaniaz idatzitakoa– euskal izena duten pertsonaiez josia egon).

Baina Garmendia saileko testuetan bestelako jolasak ere egiten dira. Esaterako, poesia oso presente dago beti, *Garmendia eta Fannyren sekretua* honetan gondolariaren olerkia nahiko (eta nahita) barregarria bada ere; Xi sukaldari txinatarra ahaztu gabe, galletatxoan barruan poemak idazten dituen. Edo helduon iruditerian oso txertatuta dauden pertsonaiak agerrarazten dira: Buffalo Bill eta Sitting Bull, aurrekoan; Casanova, oraingo honetan... Ekintza nagusiaren haria atzeratzeko sarritan erabiltzen den beste baliabide bat bigarren mailako istorioak tartekatzea da, dela pertsonaiaren baten ahotik, dela amestutako istorioen bitartez.

Aipamen berezia merezi duen beste kontu bat liburu hauetan zehar Uribek garatutako poetika da. Horrelakoak, normalean, “estilo zainduaren” aipamena eginez garbitu ohi dira. Hala ere, haurrentzako liburuetan estilo zaindua topatzea ez da uste bezain ohikoa. Uriberen estilo pertsonala zenbait ezaugarritan gauzatzen da: irakurketari izugarri laguntzen dion sintaxi erritmikoa, pertsonaia bakoitzaren karakterizazioa hitz egiteko modu xebreren baten bidez, eta, narratzailearen ahotsari dagokionez, oso identifikagarriak diren esamolde markatuen erabilera, horietatik batzuk idazlearen jaioterriko hizkeratik hartuak (“pentsatu zuen bere bostean”, “izerdi plotean esnatu”, “zakurra elizan baino galduago”...). Alde horretatik, aurreko belaunaldiko Patxi Zubizarretak aurkitutako ahots pertsonala gogorarazten dit, distantziak distantzia.

Aurreko guztia bilduz, bada, esan daiteke Kirmen Uribek genero jakin bat baliatu duela bere literatura propioa garatzeko aitzakia gisa, eta ez alderantziz.

Manu Lopez Gaseni